



Arartekoaren 2016R-1827-15 Ebazpena, 2016ko abuztuaren 11koa. Horren bidez, biztanleen errolda araupetu duen arautegia egoki aplikatzea gomendatzen zaio Arratzua-Ubarrundiako Udalari.

Aurrekariak

1. (...)k kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan, Arratzua-Ubarrandiako Udalak ez ziolako haren familiarekin benetan bizi den bizilekuan erroldatzen utzi.

Pertsona horrek adierazi du 2013ko azaroaren 5ean (...) zenbakian erroldatzea eskatu zuela, haren familiarekin batera bizi den tokian. Udalak ez zion helbide horretan erroldatzen utzi eta honakoa argudiatu zuen ezezkoa emateko: bizileku horrek ez zituen bizitzeko baldintzak betetzen, eta ezin zen etxebizitza izateko egokitu, udal planteamenduak ez baitzuen baimentzen.

Hala ere, eskatzailea eta haren familia Gizarte Zerbitzuen egoitzan erroldatzea proposatu zen, 1997ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 4. atalean ezarritakoaren itzalpean, eskatzaileari eta haren familiari gizarte eta osasun arloko prestazioak eta beraiei dagozkien gainerako prestazioak emateko. Interesduna ez zegoen ados irtenbide horrekin, eta benetan bizi zen tokiko helbidean erroldatzeko eskatzen zuen.

2. Kexa aztertu eta gero 2015eko urriaren 27an Arratzua-Ubarrandiako Udalera jo genuen, azaldutako gaiei buruzko informazioa eskatzera, eta biztanleen erroldaren administrazio-erregistroaren araupeketari buruzko gogoeta batzuk helarazi zitzaizkion. Beraz, laburbilduz, erakunde honek udalari jakinarazi zion udalak familia hori eskatutako etxebizitzan erroldatzeko betebeharra duela, benetan bertan bizi direlako; eskatutako lekuan erroldatzea ukatzeko emandako arrazoiak ez datoz bat aipatutako erregulazioarekin.
3. Udalak, Arartekoari erantzun zion 2015eko abenduaren 15eko idazki baten bidez: jada ezagutzen genituen gertaerak azaldu zizkion, baina ez zuen beharrezko oinarri juridikorik argudiatu kexa aurkeztu zuen pertsonari ezezkoa zergatik eman zioten azaltzeko.

Bestalde, udalaren erantzunak honako hau ere adierazi zuen: *“está realizando las comprobaciones oportunas ya que parece que el Sr. (...) no reside en el municipio ya que todas las notificaciones que se intenta realizar desde el Juzgado o desde los Servicios Sociales resulta infructuosas, en caso que se demuestre que el mismo no reside en el municipio se procederá a iniciar el correspondiente expediente para darle de baja de oficio”*

4. Emandako informazioa kontuan hartuta, erakunde honek 2016ko urtarrilaren 18an bigarren eskaera bat aurkeztu zuen, eta gure aurreko jakinarazpeneko gogoeta juridikoak berretsi zituen. Beraz, azpimarratu nahi dugu udalak familia hori eskatutako etxebizitzan erroldatzeko betebeharra duela, benetan

bertan bizi direlako; eskatutako lekuan erroldatzea ukatzeko emandako arrazoiak ez datoz bat aipatutako erregulazioarekin.

Gainera, bigarren jakinarazpenean adierazitakoaren arabera, benetako bizilekuan erroldatzeko beharrak ez du esan nahi udalak, hala badagokio eta dauzkan eskumenak erabiliz, ezin dezakeenik espediente bat izapidetzea beharrezkotzat jo, aplikatu beharreko administrazio-prozeduraren arabera erabakia eragiten dienak benetan aipatutako lekuan bizi diren egiaztatzeko.

5. Arratzua-Ubarrundiako Udalak, eskaerak egin diren arren, ez dio erakunde honek egindako eskaerari erantzun.
6. Azkenik, kexa aurkeztu zuen pertsonak jakinarazi du ez direla jada Arratzua-Ubarrundiako bizilekuan bizi, 2016ko martxoaren 10eko Vitoria-Gasteizko 1. auzialdiko 2. epaitegiko autoaren bidez bizilekutik bota zituztelako. Beraz, Arartekoari eskatzen dio gai horren inguruko iritzia eman dezan. Izan ere, kontuan hartu behar da aurkeztutako autoaren oinarri juridikoak azpimarratu egiten duela epaitegiak okupatzailea zitatu behar duela; kexagilearen iritziz beste egoitza batean bizitzeak eragina izan du botatzean.

Gogoetak

1. Lehenik eta behin, ebazpen hau emateko helburua zein den adierazi behar da; kontuan harturik kexagilea jada ez dela ez eskatutako helbidean bizi, ezta erreferentziatzko udalerrian ere.

Nolanahi ere, udalak ez du egoki aplikatu errolda-erregistroaren araudia, eta interesdunaren aburuz, udalaren jarduketa horrek ondorioa izan du, eta erakunde honi gaiaren gaineko iritzia emateko eskatu dio. Hori dela eta, egokitzen jo dut gogoeta hau bidaltzea, egoki diren ondorioetarako.

2. Honako hauek dira Biztanleen errolda eta horren kudeaketa arautzen duten xedapenak: Toki-erakundeetako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapearen Araudia (-BLM-, 1690/1986 Errege Dekretua, ekainaren 11koa) eta Idazkariordetzaren 2015eko martxoaren 16ko Ebazpena, Estatistika Institutu Nazionalaren Presidentziak eta Eskumenak Autonomia Erkidegoekin eta Toki Erakundeekin Koordinatzeko Zuzendaritza Nagusiak 2015eko urtarrilaren 30ean emandako ebazpena argitaratzekoak. Ebazpen horretan, udalek aplikatu beharreko jarraibide teknikoak xedatzen dira, udal errolda kudeatzeari dagokionez (2015eko martxoaren 24ko EAO). Ebazpen horrek 1997ko ekainaren 4ko ebazpena indargabetu du. Horren bidez, udal-errolda eguneratzeko jarraibide teknikoak eman zaizkie udalei; erregulazio horri egiten dio erreferentzia, hain zuzen ere, udalak bere erantzunean. Kasu honetan interesatzen zaizkigun ondorioetarako bi ebazpenen zentzua berdina da. Zehatz-mehatz, udalak adierazitako indargabetutako instrukzioko 4 baztertuen errolda aipatzen du, eta honakoa dio:

“... el Padrón debe reflejar el domicilio donde realmente vive cada vecino del municipio. Siempre que se produzca esa realidad debe hacerse constar en el Padrón. Y de la misma manera que la inscripción padronal es completamente independiente de las controversias jurídico-privadas sobre la titularidad de la vivienda, lo es también de las circunstancias físicas, higiénico-sanitarias o de otra índole que afecten al domicilio. En consecuencia, las infraviviendas (chabolas, caravanas, cuevas, etc., e incluso ausencia total de techo) pueden y deben figurar como domicilios válidos en el Padrón, ya que la realidad es en ocasiones así.”

Beraz, instrukzio horrek adierazten zuen lehen araua da egoera fisikoak edo egoitza lekuari loturiko beste egoerek ezin dutela erroldatzea galarazi. Familia hori haiek adierazitako bizilekuan bizi dela berretsi ondoren, udalak biztanleen erroldan alta ematera behartuta dago, eskatutako helbidean.

Gezurrezko helbide batean norbait erroldatzeko aukera honakoetan justifika daiteke bakarrik:

*“La correcta aplicación de este criterio determina, por un lado, **que se deba aceptar como domicilio cualquier dirección donde efectivamente vivan los vecinos**, y, por otro, que pueda y deba recurrirse a una «dirección ficticia» en los supuestos en que una persona que carece de techo reside habitualmente en el municipio y sea conocida de los Servicios Sociales correspondientes.”*

Planteamendu hori berretsi egin da, 2015eko martxoaren 16ko ebazpenaren bidez. Ebazpenaren 3.3 atalak honakoa xedatzen du:

“Como se ha indicado anteriormente, el Padrón debe reflejar el domicilio donde realmente vive cada vecino del municipio y de la misma manera que la inscripción padronal es completamente independiente de las controversias jurídico-privadas sobre la titularidad de la vivienda, lo es también de las circunstancias físicas, higiénico-sanitarias o de otra índole que afecten al domicilio. En consecuencia, las infraviviendas (chabolas, caravanas, cuevas, etc. e incluso ausencia total de techo) pueden y deben figurar como domicilios válidos en el Padrón.

Las situaciones más extremas pueden plantear la duda sobre la procedencia o no de su constancia en el Padrón municipal. El criterio que debe presidir esta decisión viene determinado por la posibilidad o imposibilidad de dirigir al empadronado una comunicación al domicilio que figure en su inscripción. En el caso de que sea razonable esperar que esa comunicación llegue a conocimiento del destinatario, se le debe empadronar en esa dirección.

*La correcta aplicación de este criterio determina, por un lado, que se **deba aceptar como domicilio cualquier dirección donde efectivamente vivan los vecinos**, y, por otro, que pueda y deba recurrirse a un*



«domicilio ficticio» en los supuestos en que una persona que carece de techo reside habitualmente en el municipio y sea conocida de los Servicios Sociales correspondientes.»

Ondorioz, udalak kexagilea eta haren familia erroldatzeko beharra zuen, eskatutako bizilekuan, hori baitzen benetan bizi ziren helbidea. Ez zen zuzena familia "gezurrezko helbide" batean, hots, udaleko gizarte zerbitzuen egoitzan, erroldatzea.

Udalak emandako lehen erantzunean alegatu zuen gizarte zerbitzuen egoitzan erroldatzeak Toki Erakundeen Biztanleriari eta Lurralde Mugaketa Araudiko 56.1 artikuluan herritarrei ematen zaizkien eskubide eta betebeharrak izatea zekarrela. Hala ere, kexagilearen iritziz udalaren jarduketak kalte egin dio; ebazpen honen helburua ez da balizko kalteak eta horien ondorioak ebaluatzea. Hala ere, egia da okupatzen zuten lokala ez den beste leku batean erroldatuta egotea familiaren botatzea egikaritu zien epailaren autoan berariaz aipatzen dela.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Udalak erroldatzea eskatzen duten pertsonak haiek eskatutako helbidean erroldatzeko beharra dauka, eta udalak erroldan bizilekutzat onartu behar du pertsona horrek jakinarazpenak jaso ditzakeen edozein arrazoizko toki.

